



AGENDA 21 GOIERRI  
GOIEKI  
Mallutz 18, 20240 Ordizia  
943 16 09 70/943 16 15 37  
agenda21.goieki@goierri.org  
www.goierri.org

BOLETIN ELEKTRONIKOA, gizartea, 8. zenb., 2009ko abendua

## Immigrazioa

- **GOIERRI KOLORE. Balorazioa**

Edizio honetan zenbait helburu lortu dira: goierritar zahar eta berrien arteko ezagutza, giro atsegina eta batez ere hainbat elkarte eta pertsonen inplikazioa.

“Bizi istorioen kontaktak” eta “Gaztelekuak aniztasunean hezitzen” bezalako ekintzen bitartez, zenbait udalerrietan aniztasun kulturalaren inguruan lan egiten jarraitzeko aukera zabaldu da.

- **Formazio / Sentsibilizazio Kanpaina.**

*Aniztasunaren Kudeaketa eta Elkarbizitzarako Goierriko I. Planaren* helburuei jarraituz, Harrera Sareko eragileei formazioa eskainiko zaie aniztasunaren kudeaketa eta sentsibilizatorako erremintak eskainiz. Formazioan honako eragile hauek hartu dute parte:

1.- **Bakarrik dauden Adin Txikiko Atzerritarrak.** Guztira 10 pertsona. Eragileak: Legorretako bakarrik dauden adin txikiko atzerritarren zentroko hezitzaile eta arduradunak, CRONOk hezitzaileak, Gaztelekuak.

2.- **Balore kulturalak lanean.** Guztira 13 pertsona. Eragileak: Gizarte zerbitzuak, INEM eta Lanbideko teknikariak, Gurutze Gorriko txertatze eta immigrazio teknikariak, emanzipazio prozesuan dauden adin txikiko atzerritarren zentroko hezitzaileak eta Goiekiko Inkubategiko teknikariak.

3.- **Etorkinak orokorrean eta adin txikiko haur eta gazteak kargu daukaten familia etorkinekin gizarte lana.** Guztira 15 pertsona. Eragileak: Gizarte zerbitzuak, kale hezitzaileak, Ikastolak, Goiekiko teknikariak, Gurutze Gorriko gizarteratze eta immigrazio teknikariak.

“Herriarren parte-hartzea eta immigrazioa” ikastaroa atzeratu egin zen taldea ez zelako osatu. Bestalde, orokorrean ikastaroen edukia eta irakasleekiko balorazioa positiboa izan da.

- **BATA Lan Taldea. Legorreta**

Bakarrik dauden adin txikiko atzerritarrak Legorreta eta bailarako ingurunean txertatzeko asmoz, urte guztian zehar lan talde bat bildu gara integrazioa nola kudeatu lantzeko. Bertan parte hartzen duten eragileak honako hauek dira: alkatea, ongizateko zinegotziak, gizarte laguntzailea, Foru Aldundiko ordezkaria, guraso elkarte, Ugao herri eskola, zentroko arduraduna, CRONO programako hezitzaileak eta Goiekiko immigrazio teknikaria.

Elkarlana eta koordinazioa oinarritzat hartuz, Baketik eta Foru Aldundiak abian jarri duten “Izeba” programaren difusioarekin batera, proiektu honen arduraduna ere lan taldera batu da.

BATA zentro hau orain urte bete ireki zen eta azken bilerako balorazioa oso positiboa izan da; bai gazte eta zentroaren kudeaketaren bilakaera aldetik, zein

## Ikasketan oinarritutako herritarren-partehartzea

- **IKASIZ – Goierri eta Urola Garaiko Ikaskuntzarako Bitartekotza Zerbitzua**
  - Adimen Emozionalean oinarritutako ikastaroa egin da, 30 orduko iraupenarekin, 12 pertsonak hartu dute parte eta abenduaren 16an bukatu egin da. Ikastaro hau egiteko 70 pertsona baino gehiago erreserban daudela ikusirik, hurrengo urterako beste bat antolatzea da gure asmoa (2010eko martxoan). Hauetako ikastaro batetik, asoziazionismoaren garrantziarekin erlazionaturiko dinamika bat burutu zen eta honekin batera trukean oinarrituko den elkarte baten sorkuntzan interes handia sortu zen. Gaur egun ideia honi gertuko etorkizun batean proiektu hau errealitate bihurtu dadin laguntza eta lankidetzak ematen ari gara *Ikasiz* programatik.
  - Irailetik hona, 28 eskaera berriri eman zaio erantzuna, lehenagoko 25 baino gehiago aktiboak izaten jarraitzen dutelarik. Honez gain, Ikaskuntza Sarean parte hartzen duten entitateei interesgarria zaien informazioa bidaltzen jarraitzen diegu.
  - Ikaskuntzarako eskaintza oro biltzen duen Web orria mantendu: [www.hiru.com/ikasgida](http://www.hiru.com/ikasgida). Ikaskuntza Sarea osatzen duten entitateek [www.goierri.org/eu/area\\_social/ikasiz\\_red\\_aprendizaje/](http://www.goierri.org/eu/area_social/ikasiz_red_aprendizaje/) Goierri eta Urola Garaiko ikaskuntza eskaintzak bidaltzen dizkigute ikasgidako web orrian informatizatzeko. Honez gain, Goiekiko web orriaren "Agenda" atalean, bi eskualdeetatik jasotzen ditugun kultur egitarauak atxikitzen dira, interesa eduki dezakeen edozein herritarrek deskargatzeko aukera errazteko. <http://www.goierri.org/eu/actualidad/agenda/>
  - Agente berriekin harremanak egiten jarraitzen da eta erregistroan agertzen diren Goierriko elkarten datuak eguneratzen ari dira.

## Esperientzia eskola

- Ikasturte honetan 10 parte hartzaile ditugu. Orain arte izandako ikasle kopuru gutxiena izan duen ikasturtea da. Horregatik urte honetarako programaturiko saio asko irekiak izaten ari dira, Goierri eta Urola garaiko pertsonentzat. Orain arte izandako saioak hauek izan dira:
  - Jesús Torquemada. Egungo gai internazionalen inguruko tailerra. Urriak 6,7 eta 8.
  - Joseba Barandiaran. Krisiaren egoera Euskal Herrian. Urriak 21.
  - Paco Echeverria. Memoria historikoa. Azaroak 18.
  - Blanca Morera. Bioetika. Azaroak 19,24 eta 25.
  - Idoia Noain. Elikadura osasuntsua. Abenduak 3.
  - Xabier Irastorza. Fede esperientzia. Abenduak 16.Datorren urteari begira, pertsona berriak proiektu honetara gerturatzeko gogoeta egingo da. Esperientzia eskolan parte hartu duten pertsona guztiak bat datoz oso proiektu egokia dela. Hau horrela izanik, esfortzu berezia egin behar da 50 urte baino gehiago duen edonork parte hartu bai dezake. Aipatu behar da, azkeneko urtea amaitu zuten ikasleak proiektu interesgarri bat lantzen ari direla. Goierri zein Urola garaiko Jubilatutako etxeak ezagutzen ari dira. Beraiek bai dira leku hauetan parte hartuko duten generazio berriak.

## Gizarte Kontseiluaren dinamizazioa

- **Adineko pertsonen komisia** burutu zen, azaroaren 18an. Bertan azaldu zen eskualde mailan dugun zerbitzuen azaleko erradiografia bat. Bereiztu egin ziren Herri txiki, ertain eta handiak. Baita adineko pertsonak 65 urte baina gehiago dituztenak, oraindik bizi kalitate egokia dutelako kasu gehienetan eta 80 urte baina gehiago dituztenak, azken hauetan dependentzia egoerak areagoak bai dira.

Orokorrean adineko pertsonen zuzentzen zaien zerbitzuak egokiak dira, batez ere dituzten prestazioak asko zabaldu direlako. Baina ez dira neurri berdinean giza baliabideak areagotu.

Garrantzia eman zitaion etxez etxeko laguntza zerbitzuari, pertsonaren intimitatea ematen den zerbitzu bat da eta hemendik informazio asko eskuratu daiteke.

Ondo dauden adineko pertsonak boluntario ekimenetara motibatuzeko bideak lantzea proposatu zen. Pertsona hauen bizi kalitatea hobegotzeko eta baita ingurukoena.

Azkenik erlazio sozio sanitarioaren koordinazioa beharrezkoa ikusten da, pertsona hauen egoeraren berri izateko eta premiazko egoera askoren aurrean aukera desberdinak lantzeko.

- **Emakumearen** inguruan Eskualdean tailer desberdinak burutzen ari dira. Proiektu hau eskualdeko elkarteen eskaera izan zen, Farapi aholkularitza enpresaren bitartez eraman da eta modu honetako ekimen batean laguntzen den lehenengo aldia da. Egin diren tailerrak:

1. **Zer pasatzen da hezkuntzarekin ?**
2. **Zer pasatzen da lan munduarekin?**
3. **Zer pasatzen da bateragarritasunarekin?**

Hauek izan dira Beasain, Ordizia eta Itsasondoko herrietan landutako gaiak. Aste honetan amaituko dira, eta emaitzak jakin beharko ditugu ondoren. Oso positiboa izan da, egoera oso desberdinetako pertsonak biltzeko aukera bat izan delako eta eduki teorikoez aparte bizi esperientzia hauek oso baliagarriak izan dira.



AGENDA 21 GOIERRI  
GOIEKI  
Mallutz 18, 20240 Ordizia  
943 16 09 70/ 943 16 15 37  
agenda21.goieki@goierri.org  
www.goierrri.org

BOLETIN ELEKTRONIKOA, ekonomia, 8. zenb., 2009ko abendua

Zertan ari gara?

> Hiruhileko honetan, hainbat izan dira **Lankidetzaz Sareko** ekimenaren baitan aurrera eramandako ekintzak. Hauen artean honakoak:  
**Enpresa Txikien Foroarekin** lanean jarraitu dugu.

- ✓ Foro hau osatzen duten enpresetako arduradunen komertzializazio gaitasunak hobetzeko helburua ezain duen proiektua amaitu dugu oraingoz. Grupo Bentaseko Ana Blancoren eskutik (Gipuzkoako Merkatal Ganbarekin lankidetzan) azaroaren 18an azken taldeko jardunaldia ospatu zen eta bertan, nahi izan zutenek euren enpresa aurkezteko aukera izan zuten, proiektuan zehar ikasitako kontzeptuak barneratuz. Hemendik aurrera, parte hartzaile bakoitzarengan identifikatu diren sendotasunak elkartrukatzeko helburua izango duen "Dohaien transferentzia" rako proiektuarekin jarraitzea izango da xedea.
- ✓ Gipuzkoako Foro Aldunditik, Berrikuntza eta Jakintzaren Gizarteko Saileko arduradunak Enpresa Txikien Foroarekin bildu ziren orain arte egindako lana gertuagotik ezagutzeko asmoz (azaroaren 30ean). Iñaki Ibarra (Berrikuntza eta Jakintzaren Sustapenerako Zuzendari Nagusia) eta Joseba Amondarain (Jakintza eta Enpresa Jardueraren Sustapenerako Zerbitzu Burua) izan ziren gurekin eta orain arteko ibilbidea ezagutu ondoren, enpresetako arduradunekin ohiko foro batean parte hartzeko aukera izan zuten.

**GET GUNE.** Goierriko enpresa traktore eta enpresa txikien arteko lankidetzaz proiektuak bilatu, dinamizatu eta kontrolatzeko sistema sostengarri bata sortu eta kudeatzea helburu duen proiektu honen baitan ere hainbat izan dira aurrerapausoak:

- ✓ Urriaren 5ean Indarreko erosketa arduradunekin bildu ginen GETGUNE proiektua aurkeztu, enpresako azpiegitura berriak ezagutu eta proiektu zehatz posibleak definitzeko asmoz. Une honetan beraz, proiektua definitzeko prozesuan aurkitzen gara.
- ✓ Elkar, Mauleko ingeniariatza enpresarekin batera martxan jarri dugu dagoeneko ekoizpen proiektua. Urriaren 13an aurkeztu ziguten eskualdeko enpresekin martxan jarri nahi zuten prozesua eta urriaren 19an pieza horiek lan zitzaketen galdaragintza enpresak bildu genituen. Une honetan, Elkarren erantzunaren zain gaude piezak martxan jartzeko.
- ✓ SPRIko Berrikuntza Zuzendari den Juan Castrokekin bildu gara GETGUNE proiektuaren berri eman eta datorren urtera begira martxan jarri nahi ditugun ekintzak aurkezteko. Hori dela eta, ekintza zehatzak aurreikusten dituen proiektua aurkeztu diegu euren laguntza jasotzeko asmoz.

**Enpresa Traktoreen Foroa** ospatu genuen lehen aldiz azaroaren 23an. Bertan,



INGURUMEN, LURRALDE  
PLANGINTZA, NEKAZARITZA  
ETA ARRANTZA SAIA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACION TERRITORIAL,  
AGRICULTURA Y PESCA

eskualdeko enpresa traktoreetako 12 bildu genituen; Lankidetzaz Sarearen ibilbidea aurkeztu ondoren, Luis M<sup>o</sup> Altunak GETGUNE proiektua aurkeztu zuen, lehen fase honetan, enpresa traktore eta hornitzaileen sarearen arteko lankidetzaz sustatzea helburu duena. Bestetik, Enpresa Txikien Foroarekin egin bezala, euren arteko lankidetzaz eta jakintzaren elkartrukea helburu duen Enpresa Traktoreen Foroa osatzeko proposamena aurkeztu genien. Positiboki baloratu zuten ekimena parte-hartzaileek eta urte berriari begira, lanean jarraitzeko asmoa baieztatu zuten aho batez.

- > **Orkestraren** bitartez (Lehiakortasunerako Euskal Institutua) antolatu den **eskualde sareak dinamizatzeko proiektuaren** baitan, urriaren 29an, proiektu hau ixteko, sare hauek martxan jarri ditugun garapen agentziek gainerakoei gure esperientziaren berri emateko aukera izan genuen Debegegan (Eibar). Bide batez, etorkizunera begira planteatzen zaizkigun zalantzak mahai gainean jarri genituen, parte-hartzaileen ekarpenekin erantzuteko asmoz. Gainerako agentzia eta sareen esperientziatik zuzenean ikasteko aukera izan dugu proiektu honen eskutik eta aurrerantzean, jarraipena ematea oso interesgarritzat jo genuen bertan bildutakoek.
- > GOEKIn, SPRIrekin elkarlanean, **"Teknologia Berriek krisi garaian duten balio estrategikoa deskubrituz" barnetegi teknologikoa** antolatu genuen abenduaren 1 eta 2an. Barnetegi honek 24 orduko iraupena izan du eta IKTak, pertsonen produktibitate eta enpresaren kudeaketarako, nola erabili ikastea izan du helburu nagusizat. Barnetegi honetan 7 enpresek hartu zuten parte, oso emaitza onak lortu direlarik.
- > Pasa den abenduaren 4ean, GOIEKiko instalakuntzetan, **The 10 Million Project** lehiaketako bigarren edizioaren aurkezpena egin zen, Gipuzkoa Berritzenen lidergoarekin. *The Ten Million Project* inizatibak sormenaren eta berrikuntzaren errekonozimendu publikoa bultzatu nahi du gizarte eta ekonomia agenteen artean. Proiektu honekin Gipuzkoako pentsamentu berritzailea sustatu nahi da eta, aldi berean, horrelako ezaugarriak dituzten proiektuak bideragarriak izan ahal izateko behar dituzten laguntzak bideratuko dituen arduraduna izan nahi du.
- > Urrian zehar **Goiekiko Inkubategia Kultura Ekintzailearen inguruan hitzaldiak** ematen aritu da Goierri Eskolako ikasleei, erdi eta goi mailako zikloko hain zuzen ere. Guztira 46 ikasle izan dira Goiekiko instalazioak ezagutzen egon diren ikasleak. Ikasle hauek negozio bat martxan jartzeko pausuz ezagutzeaz gain, Inkubategiko enpresa gunea ezagutzeko aukera izan dute.
- > Azaroaren 9an, 2009 urteko azken **enpresa kudeaketa ikastaroa** burutu da, ikastaroak modulu ezberdinak izan ditu, enpresa kudeaketa, bideragarritasun plana eta entitate finantzarioekin negoziaketa. Ikastaroan guztira 14 pertsonak parte hartu dute, alde batetik alde teorikoa jaso dute eta ondoren, alderdi praktikoan bideragarritasun plana amaitzeko aukera izan dute.
- > **Goierriko Berrikuntza Gune** berriari dagokionez, alde batetik, LKS Aholkularitzarekin elkarlanean jarraitzen dugu, Iñaki Dorronsoro da LKStik parte hartzen duen ikerlaria eta orain arte burutu den lana antolakuntza, eredu berriak eta erreferentziazkoak ezagutzea izan da eta bestetik LKS Ingeniaritzarekin, eraikuntza berriaren curre proiektua definitu da.
- > Bestalde, **Enpresa Ekimen Berrien XIII. Sariketaren** antolaketarekin hasi gara, aurten triptiko eta kartelen inguruan aldaketa batzuk egin dira.

## Zer gehiago?

- Goiekiko **webgune berria**: [www.goierri.org](http://www.goierri.org). Bertan, agentziaren eskutik martxan jarritako ekimen orori buruzko informazioaz gain, Zerbitzualdearen baitan lantzen ari garen ekimenen berri ematen dugu egunez egun.
- Goierriko **enpresen gida industrialaren** azkeneko aldaketak gehitzen ari gara, hurrengo hilabeteetan plazaratuko dena eta web orrian edonoren eskura edukiko duguna.
- **Eskualdeko Enpresa Sarearen Mapa Birtuala** martxan da gure webgune berrian. Bertan, eskualdeko industria-gune orotako enpresa bakoitzaren informazioa dago eskuragai, bakoitzaren kokapen geografikoari loturik. Gida honek, enpresa ororen mapa eguneratu eta dinamikoa izateko helburua du. Maparen eguneraketa prozesuan etengabe lanean ari gara kalitateko zerbitzu eskaintzeko asmoz.
- Urtariletik aurrea, **Enpresa Ekimen Berrien XIII. Sariketaren** difusioarekin hasiko gara, horretarako ikastetxe, enpresa, udalak, entitate finantzarioekin eta komunikabideekin jarriko gara harremanetan.





AGENDA 21 GOIERRI  
GOIEKI  
Mallutz 18, 20240 Ordizia  
943 16 09 70/ 943 16 15 37  
agenda21.goieki@goierri.org  
www.goierri.org

BOLETIN ELEKTRONIKOA, ingurumena, 8. zenb., 2009ko abendua

Zertan ari gara?

1. Mugikortasuna. Eskualdeko **eskoletako garraioaren inguruko azterketa** bat martxan jarri da. Azterketa honen bitartez, eskualde mailan dauden eskoletako garraio zerbitzuak aztertuko dira elkarren artean garraioak konpartituz gaur egungo sistema eraginkorragoa egin daitekeen ikusteko. Dagoeneko eskualdeko eskola gehienekin bilerak eduki dira eta datuak biltzen hasi gara. Hurrengo pausoa datuak aztertu eta proposamenek diseinatzea izango da.
2. Azken buletinean aipatu zen bezala eskualdeko **kirol instalakuntzetan** ingurumen hobekuntzak garatzeko proiektu bat gauzatzen ari gara. Proiektu honen bitartez instalakuntzen ingurumen egoera aztertu da, alde batetik ingurumen betebeharrak eta bestetik ingurumen aspektuen egoera (energia, ura eta produktu kimikoen kontsumoak) aztertu delarik. Proiektuan parte hartzen hari diren instalakuntzak Antzizar (Beasain), Josemiel Barandiaran (Lazkao) eta Majori (Ordizia) kiroldegiak dira. Dagoeneko instalakuntzen ingurumen diagnostiko eta ekintza plan bat osatu da. Hurrengo pausoa udal ordezkarietara diagnostikoa eta ekintza plana ezagutzera emango zaie ekintzei lehentasuna eman diezaieten.
3. Azaroaren 19an eta abenduaren 3an **eskualdeko foroaren** bilerak ospatu dira. Eskualdeko agenda 21aren ekintza plana 2005 urtean diseinatu zen eta azkenaldian honen eguneratzea beharrezkoa zela adostu zenez behin behineko ekintza plan bat osatu da. Azaroaren 19an egin zen bileran, abian jarritako prozesua aurkeztu eta planean bildutako ondorengo gaiak aztertu ziren; mugikortasuna, lurraldearen antolamendua, ingurune naturala eta baliabideen kudeaketa. Abenduaren 3an izandako bileran ura, energia, hondakinak eta parte-hartzearen inguruko gaiak lantzea aurreikusia zegoen baina izandako partaidetza baxua izanik ezin izan egin. Ekintzen priorizazioa egiteko lehendabizi internoki proposamen bat lantzea erabaki zen. Ondoren proposamen hau partaide guztiei luzatuko zaie beraien ekarpenak egin ditzaten. Bestalde, era beren eta hirugarren urtez jarraian ekintza planaren ebaluaketa martxan dago. Honen helburua bertan jasotako ekintzen gauzatze maila konprobatzea da.



INGURUMEN, LURRALDE  
PLANGINTZA, NEKAZARITZA  
ETA ARRANTZA SAIA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACION TERRITORIAL,  
AGRICULTURA Y PESCA

## Esperientzia interesgarriak...

- ☞ Ataungo udalak [www.atauningurumena.net](http://www.atauningurumena.net), web orrialde berria aurkeztu du. Web orrialde honetan azken hilabete hauetan udalak herritar batzuekin elkarlanean garatu duten iraunkortasunerako ekintza plan bat jasotzen da. Ekintza plan honetan biltzen diren ekintzak 7 taldeetan sailkatzen dira (energia, mugikortasuna, hondakinak, ura, kontsumo iraunkorra, eraikuntza eta sentsibilizazioa). Web orrialde honen bitartez, herritarrek ekintza bakoitzaren egoera ikusteaz gain ekintza berriak proposatu ditzakete.
- ☞ Bestalde, azken asteetan argitaratu den bezala Ataungo Udalak **auto elektrikoak alokatzeko sistema** bat martxan jarriko du. Sistema berri honen helburuetako bat gaur egungo garraio publikoaren zerbitzua osatzea da. Sistema berri hau 15 autoz eta beharrezko ekipamendu guztiez hornitua egongo da. Autoak San Martín eta San Gregorio auzoetako bi aparkalekutan kokatuak egongo dira. Aparkaleku hauek bidai guztien irteera eta helmuga puntuak izango dira. Bi aparkalekuek autoak kargatzeko beharrezko korrante sistemak edukiko dituzte eta bertako markesinetako teilatuen gainean plaka fotoboltaikoak jarriko dira, bertatik sistemak beharko duen energiaren hornituko delarik. Aparkalekuek ere beharrezko segurtasun sistemak edukiko dituzte. Aparkalekuetan ere makina bat egongo da autoen erreserba egiteko eta giltzak jasotzeko. Autoen erreserba internetez ere egin ahalko da. Proiektu hau Ataungo udalak, Foru Aldundiak, Kutxak eta Ihebek bultzatu dute.
- ☞ Azaroan zehar Sasieta Mankomunitateak **olioa biltzeko edukiontzi berri** bat kaleetan jarri du. Edukiontzi berri hauek, gehienetan arropa eta pila edukiontzien aldamenean aurkituko ditugu eta sukaldeko olioarentzat bakarrik dira, olio bejentalarentzat hain zuzen ere (frijitzekoa, kontserbatakoa, etab.). Edukiontzi berriak orain arte hilero egiten zen azoketako bilketa zerbitzua ordezkatzeko du. Sistema berri hau erabiltzen oso erraza da, sukaldean erabiltzen dugun olioaren ontzi batean gorde besterik ez da egin behar. Beteta daukagunean gertuen daukagun edukiontzira eraman eta bertara bota ontzian bertan ondo itxita. Gomendagarria da baina ez derrigorrezkoa ontzia plastikozkoa izatea puskatu ez dadin botatzerakoan.